

Mixel Sainte-Marie

*Landibarre,
Nafarroa
Beherea
(1926-2019)*

Aurkibidea

Biografia



Mastrika etxean sortua, eta bertan bizi gehiena eramana, laborantzan. Hiru urtez Amikuzen mutil egon ondoan, Estatu Batuetan bost urte iragan zituen, artzain, Kalifornian eta Nevadan.

Zintak

LAN-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan - Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-02-16
- **Iraupena:** 82 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Lau auzo Landibarrek

- **Erref:** LAN-001/002
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:01:58. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Lau auzo edo "kartier" ditu Landibarrek. Garai batean bakoitzak bere festak, elizak, mezak eta abar zituen, baina orain meza eta festa bakarra egiten da. Behaune, Donamartiri, Santeztebe eta Azkonbegi auzoen izenak.

2. Lau auzoetan meza garai batean

- **Erref:** LAN-001/003
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:05:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Lau auzoetan da eliza Landibarren. Garai batean denetan ematen zen meza, txandaka bada ere. Alkatea, berriz, bakarra ezagutu du. Apaizak bi lekutan ematen zuen katexima.

3. "Ogi-joitia" (gari-jotzea)

- **Erref:** LAN-001/005
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:05:38. **Bukatu:** 00:08:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>"Ogi-joitia" (gari-jotzea) eta arto-zuritzea auzolanean egiten zen garai batean. Garia jotzea lan gogorra zen, urteko izerdirik handiena han botatzen omen zen. Uztailean egiten zen. Arto-zuritzea, berriz, edonork egin zezakeen. Bi gari jotzeko makina ziren herrian, biak pribatuak. Hainbesteko bat ordaintzen zitzaien jabeei erabiltzeagatik.</p>

4. Gari gehientsua saldu egiten zen

- **Erref:** LAN-001/006
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:08:18. **Bukatu:** 00:09:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Antzina, gari gehientsua saldu egiten zen; hartutako diruarekin estaltzen ziren etxeko beharrak. Artoa gordetzen zen etxerako. Ogi irinaz ere egiten ziren taloak. Gozoagoak omen dira arto-irinaz egindakoak baino. Bizkotxak ere egiten ziren.</p>

5. Bi eihera Landibarren

- **Erref:** LAN-001/007
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:09:22. **Bukatu:** 00:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Bi eihera ziren Landibarren, biak gau eta egun lanean. Jabedunak. Bi mando zituzten errotariek eta etxez etxe ibiltzen ziren garraioan. Dirutan beharrean irinetan ordaintzen zen ehotze-lana. Azken berrogei urtean geldirik dira biak.</p>

6. Apaizari denetik ematen zitzaion

- **Erref:** LAN-001/008
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:11:00. **Bukatu:** 00:12:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Apaizari bizitzeko behar zena ematen zioten laborari gehienek. Abere bat hildakoan, haren puskaren bat, tripotak, lukainkak, azpizuna...

7. Jatordu ederrak gari-jotze eta txerri-hiltzeetan

- **Erref:** LAN-001/009
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:12:37. **Bukatu:** 00:14:39

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Jatordu handiak egiten ziren gari-jotze, txerri-hiltze eta horrelako egunetan. Baina lana ere gogor egin behar izaten zen. Esaterako, txerri-hestek garbitzeko errekarra joan behar izaten zen. Arto-zuriketetan, berriz, ez zen festa handirik egiten, eta jatordua ere arina izaten zen.</p>

8. Txerria hiltzen

- **Erref:** LAN-001/010
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:14:39. **Bukatu:** 00:16:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Bi txerri-hiltzaile ziren herrian. Txerria nola hiltzen den azaltzen du: mahai gainean, lau gizon indartsu behar ziren eusteko. Lan gogorra, baina ongi eginez gero bost minutuan amaitzen zena. Etxekoandreak biltzen zuen odola.</p>

9. Ur korrenta eta argindarra oso berandu sartu

- **Erref:** LAN-001/011
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:16:48. **Bukatu:** 00:19:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>1956an jarri zuten etxean ur korrenta; 9 herritan aldi berean. Argindarra lehentxeago, baina ez gehiegi: II. Mundu Gerraren denboran, esaterako, karburoaz moldatzen ziren. Argi ederra egiten omen zuen.</p>

10. Arropak garbitzen

- **Erref:** LAN-001/012
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:19:11. **Bukatu:** 00:22:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Etxe ondoan zuten lixiba egiteko aska, ez zuten errekarra joan beharrik,

zenbaitek bezala. Lixiba-ontzia erabiltzen zuten mihiseak-eta garbitzeko. Bolatxo bat (anila) eta sutautsa botatzen zitzaion lixiba-urari. Erramurik ez du ikusi.

11. Supazterra (beheko sua)

- **Erref:** LAN-001/013
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:22:10. **Bukatu:** 00:23:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Garai batean dena supazterrean egiten zen, baita arrautzak frijitu ere. Orduan pentsatzen zen hura gabe ezin zela bizi, baina gero etorri ziren sukalde berriak, eta ez dute azken hogeita hamar urtean supazterra piztu.</p>
<p>

12. Ogia labean egiten

- **Erref:** LAN-001/015
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:23:37. **Bukatu:** 00:24:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Etxe guztietan zen ogi-labea. Astero egiten zen ogia. Hori sakratua zen. Egurra prestatzea gizonen lana zen. Labea berotu egiten zen lehenengo, gero garbitu eta ogia sartu eta egin. Emazteen lana zen ogia egitea. Supazterra piztu ere gehienetan emazteek egiten zuten.</p>

13. Supazterrean janaria prestatzen

- **Erref:** LAN-001/016
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:24:43. **Bukatu:** 00:26:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

<p>Dena supazterrean prestatzen zen. Ez du gogoan pertza zintzilikatzeko burdinaren izena (laratza). Zopa, esaterako, sutondoan utzita egiten omen zen.</p>

14. Gauero gaztainak afaltzeko

- **Erref:** LAN-001/017

- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:26:04. **Bukatu:** 00:28:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Taloa ere supazterrean egiten zen. Gaztainak erre ere bai. Paderan (danbolina), esker-eskuin eraginez, buelta osoa eman gabe. Gauero jaten zituzten gaztainak, ugari baitzuten. Gaztaina bere oskolean gordetzen zen. Oskolean zeuden gaztaina pilak hamabost egunean behin gutxienez mugitu behar ziren</p>

Transkripzioa

-Eta, taloak'e, hor eiten ziren?

-A ba, ba, ba... Gaztainak-eta erretzen zien han.

-Gaztaina jun ta ez da erretzen ahal! Han iten ahal zen untsa asko! Egun guziz iten genitin gaztainak. Padera, padera, [...] padera hola in, [imatuz], hartan.

-Itzulikatuz, hura?

-Ez zen arras itzulikatu behar'e, hola higitzen zen. Ez zen inguru osoa eman behar. Hola. Hori bakarrik. Gau guziaz. Gue etxean gau guziaz, bederen... bazen gaztaiña frango etxean. Bagenian. Ez ze... Etxe guzitan ez zen gaztaiñik e! Ta guk bagenian frango. Hiru hilaitez, gau guziez.

-Gau guziz?

-Ha.

-Esne xorta batekin edo?

-Ba, ba, ba.

-Hori zen afaria?

-Ba.

-Gaztainak eta saldia.

-A...

-Bai, gurian be, gurian be garai hareittan, afaitteko, gaztainak eta saldia.

-A...

-Etxe batzutan berakatz saldia. Beste batzutan kipula saldia.

-A, A...

-Esne trago bat eta...

-A ba, ba, ba, ba...

-Ta leku batzuetan badakit gaztenak kontserbatzeko beren kormutsetan biltzen zirela.

-A, guk'e ba!

-A bai?

-Hala behar zen in! A, bestenaz behiala denak hamabost eguneko fini gaztaiñez. Hala, aldiz, behar zen, hala irauten zien. Geo... bai, behar zien mugitu. Meta, meta iten zen sabaian ta [guo/gero] behar zen munitu, bestela umotutzen zen, umotutzen... Behar zen munitu bederen hamabost egunetaik e! Nik in nun frangotan hua. Fua/hua ene lana zen. Gehiena nintzan ta! Bo frangotan. Ez zen lan aise ta e!

-Ez?

-U!

-Zendako?

-Behar zen para egin ümatzen, ta gio ez zen sobera barreatu, barreatua utzi behar'e ta, metan, meta haundio ta [hobe da/hobegotz]

kontserbatzeko! Bestela uzten ahal zen zaal-zaala're e!, Ez, metan behar da!

-A, to! Ta gero hoek, jotzen zintin edo?

-A ba, ba, ba, ohartzen naz problema ba. Bo, erretzen baino, denbora behar zen, e... bereixten. Jotzen zen zerbaitekin, lehenik behar zen metatik kendu, ta haiek joan jotzen, ta gero behar zen esküekin bildu, artetik, morkotsen artetik. Ta ez zen eskularrüik ordüan, e!

-Ez?

-Ez. Ez zen eskularrüik, ez.

-Baina hankiakin ez zeuen iten? Hankiakin?

-A [...] pala batekin joz.

-Pala batekin?

-Pala batekin jon, ba.

15. Ondo jaten zen egun handietan

- **Erref:** LAN-001/018
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:28:34. **Bukatu:** 00:31:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Bi urde (txerri) hazten ziren etxean jateko. Ez zen aratxerik (txahalik) hiltzen etxerako, eta urtean axuri bat edo bi gehienez ere. Baina egun handietan ondo jaten zen: bi plater beti, ardi-haragia saltsan eta errekoa. Gero pateak eta gurinak ere baziren. Untxia ere jaten zen. Erbia ere bai ehiztari-etxeetan. Beren familia ez da ehiztaria izan.

16. Landibarretik hurbileko uso-lekua, pribatua

- **Erref:** LAN-001/019
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:31:47. **Bukatu:** 00:32:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Bada Landibarretik hurbil usoak sarek harrapatzen diren mendialde bat. Baina herritarrek ez dira hartaz baliatzen, pribatua delako. Nagusiak 9 langile hartzen zituen sasoiari, erdiak Suhuskunekoak eta beste erdiak Landibarrekoak.

17. Arotzak (errementariak) lan asko

- **Erref:** LAN-001/020
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:32:58. **Bukatu:** 00:34:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Laborantza zen ia lanbide bakarra herrian. Baziren bi arotz (errementari), bi eiherazain (errotari), bi hargin eta bi maisu. Arotzak lan asko izaten zuen, orduan erreminta asko baitzen etxetan. Sosez ordaintzen zen haren lana.

18. Sosa behar bizitzeko orduan ere

- **Erref:** LAN-001/021
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:35:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria

Laburpena:

<p>Donapaleura joaten ziren astero merkatura, eta beti ziren erosi beharreko gauzak. Gero, "apez-saria" (apaizari urtero ematen zitzaion dirua), zergak, errementariari ordaintzekoa, eta abar, beti behar zen sosa. Familia gehienek ez zuten dirurik bankuan; baina ondo bizi ziren.</p>

19. Eskolaren oroitzapen ona

- **Erref:** LAN-001/023
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:37:17. **Bukatu:** 00:38:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Oso oroitzapen ona du eskolaz. Asko jostatzen ziren eta goxotasun handia zegoen. 6 urterekin hasi eta 12rekin bukatu. Gero beste urtebete egin zuen Donapaleun. Zertifikatua behar zen eskolan jarraitzeko, berak atera zuen, baina gerla hasi zen eta hor amaitu ziren Mixelen eskolak.

20. Hiru urtez "mutil" etxalde handi batean

- **Erref:** LAN-001/024
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:38:21. **Bukatu:** 00:40:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gerla bukatu ondoren egin zuen soldadutza, 46an, Parisen. Handik itzuli zenean mutil (morroi) joan zen eta hiru urte egin zituen Donapaleu aldeko etxalde handi batean. Izugarri ontsa pasatu zuen, nahiz eta goizetik gaueraino lan egin behar.

21. Landibarren familia gehienak etxejabeak

- **Erref:** LAN-001/025
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:40:21. **Bukatu:** 00:42:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Landibarreko familia gehienak etxejabeak ziren, gutxi batzuk etxezainak (maizterrak). Amikuze aldean, aldiz, gehientsuak etxezain. Bazeuden bost edo sei etxalderen jabe ziren nagusiak. Ez omen ziren urrunekoak eta beren etxezainekin mintzatzeraz eta sarri etortzen ziren.

22. Ameriketara artzain joateko erabakia hartu soldadutzan

- **Erref:** LAN-001/026
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:42:07. **Bukatu:** 00:43:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Bost anai-arreba ziren, lau mutil eta neska bat. Soldadutzan hartu zuen Ameriketara artzain joateko erabakia. Etxekoen borondatearen kontra joan zen. Geroztik beste bi anai ere joan ziren.

23. Ameriketara, han seniderik izan gabe

- **Erref:** LAN-001/027
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:45:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Ez zuen seniderik Ameriketan. Gainera, herrialde eta hizkuntza ezezaguna eta abar, oroitzapen samina du bidaiaz. Lanera zihoazen beste hiru euskaldunekin batera joan zen, hegazkinez.

24. San Franciscon eta Nevadan artzain

- **Erref:** LAN-001/028
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:45:34. **Bukatu:** 00:48:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

San Francisco inguruko (Kalifornia) familia euskaldun baten baitan egin zuen lan hiru urtez. Gero handik Nevadara aldatu eta bi urtez jardun zuen han. Oso ezberdinak ziren bi lurraldeak, Nevada menditsua eta hotza, elurra zen urtearen erdiz; Kalifornia, aldiz, laua eta epela. Italiarra zuen nagusia. Ez zuen ingelesik ikasi, espainola, berri, poliki.

25. Bost mila ardi artzain bakoitzak

- **Erref:** LAN-001/029
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:48:03. **Bukatu:** 00:49:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Erditzeko denboran artzain bakoitzak 2.500 ardiren ardura izaten zuen. Garai horretatik kanpo, udan, zelaietan libre zebiltzalarik, 5.000rena. Lan nekagarria zen haiek zaintzea. Neguan leku itxian edukitzen ziren eta ez zegoen hainbeste korritu beharrik, baina udan lan nekagarria zen. Dena oinez, ez zuten zaldirik erabiltzen.

26. Koioteak eta bakardadea, artzainaren lagunak

- **Erref:** LAN-001/031
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:50:16. **Bukatu:** 00:52:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Koiote (txakal) anitz zen Nevadan. Axuriak bakarrik erasotzen zituzten. Gauez egiten zuten beren lana, koiote bakarrak axuri mordoa hiltzen zuen. Hartzak ere baziren, baina gutxi. Behin bakarrik ikusi zuen. Erriflea izaten zuen aldean baina ez zen hartaz anitz baliatu. Kalifornian beste artzain batzuk ere izaten ziren inguruan eta elgarretaratzen ziren, baina Nevadan bakar-bakarrik egoten ziren denbora luzez inor ikusi gabe. Nagusia bost egunez behin azaltzen zitzairen. Orain ez dago artzain euskaldunik, indianoek eta hegoamerikarrek hartu dute haien lekua.

27. Artzain euskaldun asko, Hegoaldeko zein Iparraldeko

- **Erref:** LAN-001/032
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:52:49. **Bukatu:** 00:53:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Artzain euskaldun anitz, erdiak inguru Iparraldekoak eta beste erdiak Hegoaldekoak. Euskaldun asko ezagutu zuen. Autoa izan zuen, eta asko ibiltzen zen batera eta bestera. Sarri elkartzen ziren lau lagun musean jokatzeko.

28. Aldudetar dirudun batekin izandako harremana

- **Erref:** LAN-001/033
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:53:53. **Bukatu:** 00:57:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Aldudetar asko ezagutu zuen han. Sunbillar zenbait ere bai. Behin trenetaz Elcora zihoala, Aldudetar batekin egin zuen topo eta lana bilatuko ziola aginduzion. Ondasun handiak zituen gizona zen, eta biziki xarmanta. Ez zen geratu, baina harrezkero, bakantzak zituenean, haren etxera (hotelera) joaten zen bihuru egun igarotzera.

29. Negu oso gogorrek Nevadan

- **Erref:** LAN-001/035
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:57:33. **Bukatu:** 00:58:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Kaliforniako klima hemengo antzekoa da, eta ondo egoten da, baina Nevadan urte osoz zeudenak asko sufritu behar izaten zuten, negua biziki hotza delako. Udan, oihalezko denda bat zuten, eta bizpahiru egunez lekuz aldatzen ziren.

30. Mixel eta anaia, hondarretariko euskal artzainak

- **Erref:** LAN-001/037
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:01:16. **Bukatu:** 01:02:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Ondo irabazten omen zen. Bera eta bere anaia azkenetariko euskal artzainak izan ei dira Ameriketara. Mixel 58an itzuli zen, eta handik hamar urtera ez omen zen gelditzen euskal artzain bihirik. Denak mexikarrak eta hegoamerikarrak.

31. Euskaraz ordu erdiko irratsaioa astean

- **Erref:** LAN-001/038
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:02:12. **Bukatu:** 01:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Euskara » Euskararen egoera
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Aurretik nagusiarekin hitzartuta zuen noiz itzuliko zen Euskal Herrira. Gutunez komunikatzen zen familiarekin. Irratia bazuen. Ordu erdiko irratsaio bat izaten zen euskaraz.</p>

32. Espainola hizkuntza oso erabilia Kalifornian

- **Erref:** LAN-001/039
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:04:00. **Bukatu:** 01:05:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

<p>Ez zuen Euskal Herriko aldizkaririk (Herria...) jasotzen. Nagusiak espainolezko kazeta eta aldizkariak ekartzen zizkieten. Espainolez anitz mintzatzen da Kalifornian. Badira espainolezko egunkariak ere. Ingelesezt gutxi ikasi zuen.</p>

33. Zuberoko euskara, biziki diferenta

- **Erref:** LAN-001/040
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:05:38. **Bukatu:** 01:08:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskaraz ongi konprenitzen zion Sumbillako lankideari. Euskara guztiak diferenteak omen dira; nekezena zuberotarra. Donibane Lohizunekoa ere ez du aise konprenitzen. Zuberokoa, nahiz eta arrunt hurbil egon, arrunt diferentea da. Herrikoa eta Hazparnekoka dira beretzat euskararik onenak. Eurak hurbilago sentitzen dute Garaziko euskara Amikuzekoa baino.

34. Xuka gurasoak, toka eta noka Mixel eta emaztea

- **Erref:** LAN-001/041
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:08:03. **Bukatu:** 01:09:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Euskara » Tratamenduak

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Gurasoek elkarrekin "xuka" egiten zuten, gurasoek seme-alabei toka eta noka egiten zieten. Berak gurasoei xuka. Anai-arrebak elkarrekin to eta no. Emaztearekin to eta no. Horretan Amikuzen bezala omen da, baina batenaz beste, Garazitik hurbilago daude.</p>

35. Donibane Lohizunen denak euskaraz Hileta baten ondoren

- **Erref:** LAN-001/042
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:09:08. **Bukatu:** 01:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Biziki maite du Hazparneko euskara eta eskualdea. Hendaiako euskara ere ezagutzen du, baina gogorra egiten zaio. Donibane Lohizunekoa ere bai. Donibane Lohizunen guztiz harrituta geratu zen hileta baten ondoren jende guztia euskaraz mintzatzen zela ikustean. Donapaleun ez da horrelakorik gertatzen.

36. Frantsesa ongi menperatzen txikitatik

- **Erref:** LAN-001/043
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:10:40. **Bukatu:** 01:11:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Frantsesa ontsa dakite bere belaunaldikoek txikitatik. Nekez galtzen zuten eskola bere garaian. Bere gurasoen garaian, berriz, arras ezberdin zen. Landibarren eta familian beti euskaraz egiten du.

37. Artzainen omenaldian poz-pezik

- **Erref:** LAN-001/044
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:11:50. **Bukatu:** 01:13:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Duela urte batzuk Ameriketako egondako artzainei omenaldia egin zitzaion Alduden. Han izan zen bera ere, emaztearekin eta zenbait lagunekin batera. Biziki ontsa pasatu zuen. Begi onez ikusten ditu horrelako ekitaldiak.</p>

38. Ameriketara polizia eraginkorra lapurreten kontra

- **Erref:** LAN-001/046
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:15:27. **Bukatu:** 01:16:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Ez zen han lapurretarik. Polizia oso eraginkorra omen zen. Ordu erdiro pasatzen omen ziren beren kotxeekin. Ez omen ziren autotik irteten.

39. Ez du Ameriketara artzain joanaren urrikirik (damurik)

- **Erref:** LAN-001/048
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:18:12. **Bukatu:** 01:21:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Banka, Aldude, Urepel... eskualdetik jende gehiago joaten zen artzain Landibarre ingurutik baino. Landibarretik hiru ezagutu ditu Mixelek. Ez du Ameriketara artzain joanaren damurik. Harrezkero ez da hegazkinez ibili. Trena nahiago du bidaiatzeko. Badira artzainak biziki sufritu zutenak, baina bera gustura egon zen. Lehenago morroi eta soldadu egona zen, "kanpoko salda anitz hartua".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com